

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK:

Gure zerbitzua, interneten bidezko salmenta eta denda fisikoetako salmenta izango da, hau da, bezeroek aukera izango dute interneten bidez edo bidaietako agentzietan erosteko.

Gure ondasun eta zerbitzuak ezagutzeko telebistan iragarkiak jarriko ditugu, hauek informazio orokor bat emango dute gure produktuei buruz. Gainera, kaleetatik itsatsiko ditugu informazio iragarkiak eta web orri bat sortuko dugu informazio guztiarekin bezeroei informazioa errazteko. Bidaiatzeko agentzietan gure zerbitzuak aukeratu daitezke. Web-orrian azalduko dira bidaiaren guztien prezioak eta beherapenak adibidez.

Gure bezeroek gure balio proposamena ebaluatzeko, hegazkineko kapsuletan orri bat egongo da beraien iritzia eta proposamenak idazteko. Orri horretan kodigo bat egongo da Web-orrira bideratzen duena eta honetan jarri ahal izango dute beraien balorazioa.

Gure bezeroek, bi aukera izango dituzte gure produktua kontratatzerako orduan: gure zerbitzua erosteko bidai agentzia batera joan beharko dira eta han gure zerbitzuak aukeratu. Web-orrian (<https://inei9.webnode.es/>) ere izango dute aukera gure zerbitzuak erosteko, honetan atal bat egongo da non azaltzen diren eman beharreko pausoak bidai bat aukeratzeko eta erosi ahal izateko, gainera bidaiaren batzuetan beherapenak edo deskontuak egongo dira erakargarriagoak izateko.



Bezeroek gure produktua erosi ondoren, erreklamazio orriak eskura izango dituzte hegazkinean beraien arazoak azaltzeko. Web-orrian ere atal bat egongo da

erreklamazioak bidaltzeko, gero guk konponbide bat bilatuko dugu arazo hori konpontzeko. Konponbide bat ez badugu aurkitzen, azkenean bezeroei dirua bueltatuko zaie.

Ahoz ahokoa oso garrantzitsua da gure produktuaren ezagutza zabaltzeko. Erabili duten bezeroak, haien esperientzia zabaltzea onuragarria da gure enpresa beste batek erabiltzeko.

